

ARIKETAK

- 1 Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* aintzat hartuz, aukeratu zuzena edo egokiena:
- a) Hitzaren **ferekua** sentitzean, artisten senak biziraunen du.
b) Hitzaren **fereka** sentitzean, artisten senak biziraunen du.
 - a) Iranera erregaia **esportatzen** duten enpresei ezarri die zigorra; ezingo dute ez mailegu, ez laguntza ekonomikorik jaso.
b) Iranera erregaia **exportatzen** duten enpresei ezarri die zigorra; ezingo dute ez mailegu, ez laguntza ekonomikorik jaso.
 - a) Histrionikoa eta **esajeratu** samarra zen Monika horrela jartzen zenean, baina bera ez zegoen haserre, pozik baizik.
b) Histrionikoa eta **exajeratu** samarra zen Monika horrela jartzen zenean, baina bera ez zegoen haserre, pozik baizik.
 - a) Errege Beltzak, pieza handia izanik, sekula ez zuen pentsatuko hura guztia ni bezalako peoi **ezteus** batek asmatua zela.
b) Errege Beltzak, pieza handia izanik, sekula ez zuen pentsatuko hura guztia ni bezalako peoi **ezdeus** batek asmatua zela.
 - a) Denak zerura begira, **auri tantak** noiz eroriko zain, hain zen handia lehortea.
b) Denak zerura begira, **auri tantoak** noiz eroriko zain, hain zen handia lehortea.
 - a) Beasaingo tren **fabrikatzaileak** 36 tren egin beharko ditu Sao Paulorako eta haien mantentze lanez arduratu beharko du datozen hogeitau urteetan.
b) Beasaingo tren **fabrikanteak** 36 tren egin beharko ditu Sao Paulorako eta haien mantentze lanez arduratu beharko du datozen hogeitau urteetan.
 - a) **Ezpain** haragitsuak, labankaden moduko begiradak.
b) **Ezpan** haragitsuak, labankaden moduko begiradak.
 - a) Laguntza eskaera hori gertatu zelarik, itsasoa aski zakarra zen, haize bolada oso indartsuak, **auri zaparrak** eta olatu aski handiak zeudelako.
b) Laguntza eskaera hori gertatu zelarik, itsasoa aski zakarra zen, haize bolada oso indartsuak, **auri zaparradak** eta olatu aski handiak zeudelako.
 - a) Garaipena lagungarria da fase horretan, ez erabakigarria, eta **eskaera** apalago horrek partida galtzea hain larria ez izatea ekartzen du.
b) Garaipena lagungarria da fase horretan, ez erabakigarria, eta **exijentzia** apalago horrek partida galtzea hain larria ez izatea ekartzen du.
 - a) Basoa, larrea, aintzira, hondartza edo **fadura** ekosistematzat hartzen dira.
b) Basoa, larrea, aintzira, hondartza edo **padura** ekosistematzat hartzen dira.
 - a) Hegaluzearen Eguna ere **faneka** janez ospatuko omen dugu laster; eta **faneka** bukatzen zaigunean, asmatuko omen dugu beste zerbait konpultsiboki harrapatzeko eta kontsumitzeko.
b) Hegaluzearen Eguna ere **paneka** janez ospatuko omen dugu laster; eta **paneka** bukatzen zaigunean, asmatuko omen dugu beste zerbait konpultsiboki harrapatzeko eta kontsumitzeko.
 - a) Thepaultek poliziaren oinetakoaren marka zuen aurpegiaren **ezkerralde** osoa zeharkatzen.
b) Thepaultek poliziaren oinetakoaren marka zuen aurpegiaren **ezker alde** osoa zeharkatzen.

A R I K E T A K

2 “Gramatika” ataleko azalpenak kontuan hartuta, aukera ezazu esaldi zuzen edo egokiena:

1. a) Zorionari zein zorion itxurari **dagokionez**, ez duzu ezer aipatu hitzaldian.
b) Zorionari zein zorion itxurari **dagokienez**, ez duzu ezer aipatu hitzaldian.
2. a) Hantxe topatu zuten arbola hura eta gerora huraxe izango zen beren elikaduraren oinarria.
b) Hantxe topatu zuten arbola hura, eta gerora huraxe izango zen beren elikaduraren oinarria.
3. a) Testuaren ekoizpena edo adierazpen idatzia aztertuko da: hiztegia, **koherentzia-maila** eta **ortografia-akatsak**.
b) Testuaren ekoizpena edo adierazpen idatzia aztertuko da: hiztegia, **koherentzi-maila** eta **ortografi-akatsak**.
4. a) Tesi berbera darabil egileak liburuko **7., 13., 16. eta 19.** kapituluetan.
b) Tesi berbera darabil egileak liburuko **7, 13, 16 eta 19.** kapituluetan.
5. a) Maletan nola edo hala sartu zituen arropak eta bitxiak eta leihorik itxi ere egin gabe alde egin zuen.
b) Maletan nola edo hala sartu zituen arropak eta bitxiak, eta leihorik itxi ere egin gabe alde egin zuen.
6. a) **Bost urfetan** bikoiztu eta gehiago egin da ehunekoaren proportzioa, %7'32tik %16'22ra.
b) **Bost urtean** bikoiztu eta gehiago egin da ehunekoaren proportzioa, %7'32tik %16'22ra.
7. a) Hizkuntza batek **zein** besteak gizartera lotzen **gaituzte**.
b) Hizkuntza batek **zein** besteak gizartera lotzen **gaitu**.
8. a) **Diplomazi-lanetan** ibili zen, eta ondarea agortzen ari zitzaionez gero, Humboldt看 lanean hasi behar izan zuen 1827an, Berlinen.
b) **Diplomazia-lanetan** ibili zen, eta ondarea agortzen ari zitzaionez gero, Humboldt看 lanean hasi behar izan zuen 1827an, Berlinen.
9. a) Adituak harri eta zur geratu dira zein bizkor zabaldu zen orain bi aste *SQL Slammer* izeneko zizare informatikoa, **hamar minutuan** hedatua baitzen mundu osoan, inoiz ikusi den zabalkunderik bizkorrena.
b) Adituak harri eta zur geratu dira zein bizkor zabaldu zen orain bi aste *SQL Slammer* izeneko zizare informatikoa, **hamar minututan** hedatua baitzen mundu osoan, inoiz ikusi den zabalkunderik bizkorrena.
10. a) Denboraldi berri bati hasiera ematen diogu, eta aurkezten dizkizuegun ikuskizunak guztion gozameneko izango direlakoan gaude.
b) Denboraldi berri bati hasiera ematen diogu eta aurkezten dizkizuegun ikuskizunak guztion gozameneko izango direlakoan gaude.
11. a) Honakoa jakinarazi digu zuzendariak: azkar egin behar dugula, zaratarik ez dugula egin behar, ezin garela gauera arte bertan egon eta ez dugula arrastorik utzi behar.
b) Honakoa jakinarazi digu zuzendariak: azkar egin behar dugu, zaratarik ez dugu egin behar, ezin gara gauera arte bertan egon eta ez dugu arrastorik utzi behar.
12. a) Bileran, araudiko **bi, lau, bost eta hamabigarren** atalak berrikusiko dira.
b) Bileran, araudiko **bigarren, laugarren, bosgarren eta hamabigarren** atalak berrikusiko dira.

3 Sinonimoak

1. Bi esaldi hauek ez dira kidekoak: **ñabardura** argi batek bereizten ditu.
2. Proiektuaren koordinatzaileak ikastetxearen eta Administrazioaren arteko **mintzaide** lanak egingo ditu.
3. Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko betekizunetik **salbuetsita** geratuko dira 55 urtetik gorako langileak.
4. Lider kateak aktibatu nahi dira, ahozko erabilera areagotzeko eta erabilera plana hobeto **mamitzeko** eta kudeatzeko bideak zabaltzeko.
5. Entitate eskatzailearen datuak eta bertan eskatzen den **gainontzeko** informazioa datorren asterako aurkeztu beharko da sailean bertan.
6. Euskaltzaindiak Frantses Akademiaren jarrera "itsusi eta bortitza" **gaitzetsi** du.
7. Prestazio berriak sartzeak ballabideak eskatzen ditu, **alabaina** ballabide horiek ez dute beti zertan osasunean inbertitzea handitu behar.
8. Eragin-esparru garrantzitsuenak **hartu** ditu **ainzakotzat**, eta erabakiak hartzeko jarraitu den prozedurak adostasun nahikoa bermatzen du.
9. Tratu txarrak ematen dituztenekiko **arbuioa** adierazi dute ehunka emakumek.
10. Webguneko foroak norberaren **gurari** eta kezken gainean mintzatzeko aukera ematen du.
11. Gernikako Arbola berria landatu zuten Gernikako Batzar Etxean, aurrekoa 2004an **ihartu** baitzen.
12. Hiriguneetako hondakin urak tratatzeari buruzko bi lege horietan zehaztuta dago hondakin ur guzti-guztiak bildu eta **araztu** egin behar direla.

SOLUZIOAK

1 Euskaltzaindiaren *Hiztegi batua* aintzat hartuz, aukeratu zuzena edo egokiena:

- | | |
|------|-------|
| 1. b | 7. a |
| 2. a | 8. b |
| 3. a | 9. a |
| 4. b | 10. b |
| 5. a | 11. b |
| 6. a | 12. a |

2 Gramatika:

- | | |
|------|-------|
| 1. a | 7. b |
| 2. b | 8. b |
| 3. a | 9. a |
| 4. a | 10. a |
| 5. b | 11. b |
| 6. b | 12. b |

3 Sinonimoak:

- | | |
|---------------------------|---|
| 1. xehetasun, bereizgarri | 7. hala ere, alfa, alabadere |
| 2. solaskide, berba-lagun | 8. kontuan eduki, jaramon egin, aintzat hartu |
| 3. libre, aske | 9. gaitzespena, mesprezua |
| 4. burutzeko, eratzeko | 10. desio, apeta |
| 5. gainerako, gainetiko | 11. lehortu, sikatu |
| 6. gutxietsi, kritikatu | 12. garbitu, depuratu |